

2006ko otsaila

46. zenbakia

AiK

txorierriko aldizkari



Martxoak



Eva y Adán, Pedro Pablo Rubens

Emakumearen Nazioarteko Eguna



Argitaratzailea: TOTOAN, Txorierriko Euskara Elkarleen Federazioa
(Lagatzu, Zorritzketan, Arrekikili, Tximintx)
Tf.: 94 452 34 47
e-posta: aikortxori@yahoo.es

Zuzendaria: Xabier Goienetxe
Erredakzio burua: Itxaso Marina

Erredakzio taldea: Fernando Larrondo, Jose Angel Mentxaka, Alberto Legarreta, Gaizka Eguskiza, Mari Tere Onaindia, Amagoia Guezuraga, Belen Gana, Pospolin eta Aritz ta Nagel

Kolaboratzaileak: Iñaki Bilbao, Lurdes Lasuen, Asier Oruetxebarria, Juan Luis Goikoetxea, Eider Bilbao, Rosa Fernandez de Leceta, Maitane Urrutikoetxea, Gaizka Peñafiel

Zuzentzaileak: Alberto Mtz. de la Cuadra, Iñaki Astorkiza eta Jagoba Zallo

Publizitatea: Arantza Atxutegi

Banaketa: Arantza Atxutegi, Gaizka Eguskiza

Maketatzailea: Gaizka Eguskiza

Inprimategia: Gertu

Ale kopurua: 5.000

Lege gordailua: BI 137-02 ISSN 1578-9322

AIKOR! aldizkariak ez dau bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esan-en edota eritxien erantzukizunik.



Basque Language Academy
Euskara Akademia



Eusko Jaurlaritza

diruz lagundutako aldizkaria

Eskutik helduta

Martxoaren 8an Emakumearen Nazioarteko Eguna izango da. Emakumeek hainbat urtetan lortutako eskubideak ospatzeko eguna da, baina oraindik eskuratu gabe dituztenak aldarrikatzeko eguna ere bai.

Gogor borrokatu behar izan dute emakumeek: etxean zein lanean, hezkuntzan eta politika arloan, elizan, kultura munduan, lagunen artean... Aikor! aldizkaria egiten dugunok omenaldi txiki bat egin nahi diegu emakume horiei guztiei. Izan ere, euskara bultzatzeko tresna izateaz gainera, jendea arazo batzuen gainean sentsibilizatzeko erreminta ere badela pentsatzen dugu. Eta XXI. mendean sinestezina iruditzen arren, bide luzea daukagu aurretik, gizonezkoen eta emakumezkoen berdintasuna arlo guztietan lortzeko.

Horrela, bada, arlo ezberdinetako emakumeak izango dituzue hurrengo orrialdeotan, Txorierrikoak guztiak. Guztiek euren esperientziak, ilusioak eta beldurrak kontatu nahi izan dizkigute. Salbuespenak salbuespen, kolaboratzaileak emakumezkoak dira ale berezi honetan, eta gaiak ere, emakumeari zuzenduta izaten ahalegindu gara. Hala ere, Txorierriko albisteak mantendu eta Aikor! jaialdiaren berri eman dugu, aldizkariak tokiko izaera ez galtzeko.

Martxoaren 8a egun sinboliko hutsa bihurtu ez dadin, eta gizarteak berdintasunerantz benetako pausuak ematen jarraituko duen itxaropena dugu. Lehen esan dugun moduan, bidea luzea da oraindik eta gizonezkoek eta emakumezkoek eskutik helduta egitea ezinbestekoa da.

AURKIBIDEA

4Eritxia **5**Gutunak **6**Laburrak eta albisteak **10**Mitotik harantz **11**Izaskun Moyua **12**Luminita Inbir eta Graciela Mollano **13**Olga Fraguas **14**Pili Gana, Ainhoa Larrabe eta Leire Etxebarria **15**Jasone Astola **16**Toti Martinez de Lezea **17**Ainhoa Bilbao **18**Eneritz Amondarain **19**Itziar Llona eta M^a Nieves eta M^a Sol Aurrekoetxea **20**Izaskun Llona **21**Mercedes moja **22**Sorkunde Aiarza **23**AIKOR!jaia **26**Zamudioko Lagunandre Emakumeen taldea **28**Arantza Amondarain **29**Teknologia **30**Musika **31**Euskal sorginak **32**Sukaldaritza **33**Denborapasa **34**Agenda

Genero desberdintasunak eta pobreziaren feminizazioa



ROSA FERNANDEZ DE LECETA
(Mankomunitateko Gizarte langilea)

Azkeneko estatistikek egiaztatu dutenez, gero eta gehiago izaten dira familiaburua emakumezko duten etxeak. Datu hori arreta handiagoz aztertu behar da, batik bat kontuan hartzen badugu lotura izaten dela halako familia egituren eta pobrezia feminizatzeko prozesuaren artean.

Azterketen arabera, pobreak eta bazterketa faktore gehienek eragin handiagoa izaten dute emakumezkoengan, gizonezkoengan baino; familiaburua emakumezko duten etxeetan, ordea, argiago ikusten da hori. Lotura horren azpian faktore bat baino gehiago dago: halako etxeetan familiaburu emakumezkoaren pentzura pertsona gehiago egoten dira (umeak zein nagusiak); diru etorri nagusia emakumezkoarena izaten da eta emakumezkoaren batez besteko diru sarrera txikiagoa izaten da gizonezkoarena baino; gainera, egoki ordaindutako enplegua lortzeko aukerak txikiagoak izaten ditu. Emakumeek familia erantzukizunak hartu behar izaten dituzte beren gain, eta, horren ondorioz, ondo ordainduta ez dauden lanpostuak hartzen dituzte, halako lanpostuak bateragarriagoak izaten baitira umeen hezkuntzarekin, familia betebeharrekin eta etxeo lanekin.

Bereizkeria bikoitza izaten da: batetik, langile diskriminatuak izaten dira, eta,

bestetik, laguntzarik jasotzen ez dutenez, baztertuta gelditzen dira beste ondasun sozial batzuetatik (denbora, espazioa, prestakuntza, autonomia...). Bi aldiz pobreak dira: batetik, pobrezia zaharra dute (ez baitute lanik, edota txarto ordaintzen baitaie beren enpleguetan) eta, bestetik, pobrezia berria dute (baztertuta baitaude kultur ondasunetatik, prestigiotik, sareetan integratzeko aukeratik...).

Genero ikuspegitik antolatu behar dira, beraz, gizarte, prestakuntza eta enplegu politikak, eta genero ikuspegi horrek emakumezkoen aukerak, ahalbideak eta beharrianak izan behar ditu kontuan. Adituak bat datoz iritz honetan: pobrezia murrizteko gakoetako bat emakumezkoen enplegua eskuratzea da. Hain zuzen ere, pobrezia tasa altuak datoz, neurri handi batean, emakumezkoen enplegatze maila eskasetik. Arazo

“Genero ikuspegitik antolatu behar dira gizarte, prestakuntza eta enplegua, emakumezkoen aukerak, ahalbideak eta beharrianak kontuan hartuz”

hauek konponbidea izango lukete, beste neurri batzuen artean, emakumezkoen hurbileko gizarte zerbitzuak gehiago garatuko balira. Erkidego mailan zerbitzu sare bat eratu behar litzateke; sare horrek bateratuko litzuke, batetik, gizarte eta osasun arloko zerbitzuak eta, bestetik, gizarte eta hezkuntza arloko zerbitzuak. Hori guztia, jakina, ahaztu gabe lanean jarraitu behar dela prestakuntza emateko, enplegu politikak garatzeko eta familia harremanetan genero rolak egokiago banatzeko.

Bekaduna?



EIDER BILBAO
(Biologoa)

Agintariei ahoa bitsez betetzen jake, Europatik gora eta behera dabilzenean. Hor ibiltzen dira, herritarroiek Europa produktua saldu gurean; eurak ondo bizi dirala, jakina. European pare-pare izan behar bagara, gauza onak be inportatu geinkez, ezta? Ikertzaileon egoerea, esaterako: Espainiako bibotedunak onartutako Bekadunaren Estatutuaren arabera (Euskal Herrian inposatu egin zan, zoritxarrez), ikertzen gabilzan lizentziatu eta doktoreak ondino geure burua prestatzen gabilzala egiten da. Ikerkuntzan lan egiten badogu, ikasleak? Unibertsitarioen prestakuntzan parte hartzen badogu, ikasleak? 37 urteko doktoreak, ikasleak? Bekadunak? Langileak? Sarritan ez daukagu argi zer garen, baina ordenadore bat erosi eta finantzazinoa atzera botatzen deuskuenean, argi lotzen jaku soldatea barik bekea daukagula eta beste batzuk baino soldata handiago izan arren ez daukagula eskubiderik. Ez daukagu langabezia-eskubiderik eta gizarte-segurantza gobernupeko bekadunentzat baino ez da (horretan be, klaseak). Beraz, etxebizitza-eskubidea ametsa baino, utopia!

Europar Batasunak ikertzaileok profesionaltzat joteko dino, baina errealitatea negargarria da Euskal Herrian. Eta zapata-riak alaketak onartu arren, hankamotz lotu dira. Nahiz eta beharra gustatu, ez da harritzekoa karrera amaitu barriek bide honeri ez ekitea edota atzerrira joatea erabakitzea!

Zeure eritxia agertu gura badozu, gutunene atal hau zabalik daukazu. Ahalik eta eritzi gehienek lekua euki dagien, ez da komeni makinazko 15 lerro baino luzeago idazterik gutunotan. Izena, telefonoa, helbidea eta nortasun agiriaren zenbakia agertu beharko dira. Laburtu behar izan ezker, Aikor!-ek bere esku dauka horretarako eskubidea. Zure eritxia aginduteko helbidea: Totoan, Aresti kalea 2, 48170, Zamudio edo aikortxori@yahoo.es

Gabonak urte osoan

Kolonbiako Pereira hiriko Las Brisas eta El Danubio auzoetako biztanleentzat 2005. urtean egun askotan izan dira eguberriak. Hemengo hainbat pertsona, enpresa eta erakundeen eskuzabaltasunari esker, ilusioa eraman diegu munduko txoko eder bezain pobre horretan bizi diren lagun batzuei.

Umeek ilusioa dute eskolara joateko, egunean behin jatea dutelako, liburutegira eta ludotekara joan daitezkeelako, aisialdiko jardueretan parte hartzea dutelako eta Olentzerok opari bana ekarri zielako. Apadrinatzeen laguntza etorkizunean inbertitzea da.

Gazteak posez daude batxilergoa amaitu ondoren unibertsitatera joatea amets izatetik errealitate izatera pasatu delako beka programari esker.

Nagusiak ere pozik dira, dauden lanbide-heziketa tailerretan ikasi eta gero lan duina izateko aukera ikusi dutelako —zazpi tailer dituzte aukeran— eta gizarte langilea dutelako, euren arazoak entzuteko eta konpontzen laguntzeko prest izaten dena.

Mojak poz-pezik dira, bidalitako diruaren bidez lokal bat erosi dutelako. Etxe horretan tailerretako produkzioa salduko dute eta proiektuaren autofinantzaketan beste pauso bat emango dute horrela. Urte hasieran erizaindegia irekiko dute Herrera eta Formazio Zentroko proiektuak, beraz, bizirik eta hazten dirau.



Hori guztiori burutzeko 117.000,00 euro bidali ditugu 2005. urtean zehar. Diru hori hainbat pertsona eta enpresen dirulaguntzaz, Gabonetako postalen kanpainen bitartez, Kolonbiako eskulanak azoketan saldaz eta Txorierriko udalek emandako diru laguntzen bitartez lortu eta bidaltzen da. Formazio Zentroko pertsonala Derioko (13.500), Zamudioko (1.200) eta Lezamako (4.000) dirulaguntzen bidez finantzatu da. Tailerretako produkzioa saltzeko erosi duten lokalerako Loiuk (3.000) eta Sondikak (450) eman dute. Diru hori Udalek Hirugarren Munduko dirulaguntzetarako duten %0,7aren parte bat da, eta azken finean gu guztion laguntza da, behar dutenentzat.

Gabonetako postalen kanpainaren bitartez 2.000.00 euro batu dira.

Kolonbiara joaten garenean esker ona besterik ez dugu hartzen hango lagunentzat eta gaur zuekin konpartitu nahi

dugu ekarri dugun kartatxo batkin. Nataly izeneko zortzi urteko neskatxo batek idatzi du. Egunero joaten da mojenera bazkaltzera, liburutegira... eta arazorik duenean babes bila:

“Me dirijo a ustedes deseando que se encuentren muy bien de salud.

La presente es para contarles que yo Nataly Osorio estoy muy agradecida y contenta por la labor que están prestando en la institución.

Ya sé que ustedes se acuerdan que aquí en Colombia hay niños necesitados como yo.

De corazón quiero agradecerles por este apoyo que nos están brindando se despide sin más, deseándoles... Dios les pague”

Ea urte osoan ilusioa sortu eta kutsatzen dugun!

Behar Bidasoa ONG-GKE

Musika eta animazioa, Sondikako Inauterietan

Martxoaren 3an eta 4an Inauteriak ospatuko dira Sondikan eta hango jai batzordeak jai egitarau hau antolatu du. Beraz, jantzi mozorroa eta ez galdu aukera!



Martxoaren 3a, barikua

20:00: Txupinazoa

23:00: Kontzertuak: Moevious, Sioux eta Amaiur

05:00: Disko-gaua

Martxoaren 4a, zapatua

11:30: Umeentzako jolas-parkea: ozeano puzgarria, kuad motorrak, zezen mekanikoa...

12:00: Xigorki Txapelketa

17:30: Potxin eta Patxin pailazoak. Umeen mozorro eta Xigorki Txapelketen sari banaketa

19:00: Txokolatada

19:30: Adiskide fanfarrea

20:00: Txatunga

21:00: Kalejira sardinarekin

21:30: Sardinaren hileta

00:00: Berbena: Luhartz

02:00: Nagusien Mozorro Txapelketaren sari banaketa

04:00: Disko-gaua

Martia kulturala, Zamudion

Lagatzu Zamudioko Euskera Alkartek hainbat kultur ekintza antolatu ditu martian zehar. Horrela, bada, Mikel Garaizabel, Iban Vega eta Luis Cañas enologoek ardo-dastatze ikastaroa emongo dabe martiaren 14tik 17ra bitartean. Ikastaroa dorrean izango da arrastiko 7etatik 9etara eta bazkideek 18€ ordaindu beharko dabe; gainontzekoek 28€.

Beste alde batetik, hilaren 18an eta 19an Iparralderako bidaia antolatu dabe, Arroeta taldeagaz batera. Bertan, Landibarre bailara eta Muskildiko Maskarada bisitatuko dabez, besteak beste. Bidaia 28€ balio dau Lagatzu eta Arroetako bazkideentzat, eta 33€ besteentzat. Autobusa, 18ko afaria eta loa eta 19ko gosaria dagoz prezio horren barruan.

Eta azkenik, bertso-afaria egingo dabe martiaren 31n, barikuan, Balgerri jatetxean. Ekitaldia iluntzeko 9etan izango da eta Sebastian Lizaso, Xabi Paia eta Etxahun Lekue bertsolariek parte hartuko dabe bertan. Afariak 14€ balio dau -18 urtetik beherakoentzat, 12€ - eta txartelak Estankotan, Marielinean, Leandro harategian, Batzokian eta Herriko Tabernan erosi daitezke martiaren 28ra arte. Argibide gehiago, 944523447 telefono zenbakian.

Jaietako Kartel Lehiaketa, Sondikan

Sondikako Jaietako XIX. Kartel Lehiaketa antolatu du bertako Udalak. Lehiaketaren oinarriak liburutegian eskura daitezke eta lanak aurkezteko epea martxoaren 24an bukatuko da.

Telefonia eta Interneten gaineko erakusketa, Lezaman

Otsailaren 15etik 19ra bitartean, telefoniari eta Interneti buruzko erakusketa egin da Lezamako Kultur Etxean, Eusko Jaurlaritzaren eskutik. Erakusketak kontsumitzaileen eskubideen eta betebeharren berri ematea zuen helburu, eta honako gai hauek landu dira han: telefoniako faktura irakurtzeko informazioa, telefono finkoaren zerbitzu gehigarriak, sakelako telefonoen inguruko mitoak eta errealitateak, sakelako telefonoa hautatzeko azterketak eta Internet kontratatzeko egin beharreko urratsak. Horrezaz gainera, tarifikazio osagarriko zenbakiei buruzko informazioa (803, 806...) ere eman da.



Testua eta argazkia: Ines Serrano



Olarreta Pilota Elkartea, txapel-duna Uribe Kostako Lehiaketan.-

Joan den urtarrilean, Uribe Kostako Pilota Lehiaketaren azken partida jokatu zen eta Larrabetzuko Olarreta Pilota Elkarteko Iker eta Mikel txapeldunak izan ziren bertan. Gazteak Derioko Eskolako Jon eta Arkaitz pilotarien aurka aritu ziren. Lau pilotariek ahalegin handiak egin zituzten, baina larrabetzuarrek irabazi zuten 18-16.

Arrekikili Kultur Astea, Larrabetzun

Otsailaren 27tik martxoaren 4ra bitartean, Arrekikili Kultur Astea egiteko asmoa zuen Arrekikili Larrabetzuko Euskara Elkartek. Hala ere, ekitaldi batzuk bertan behera utzi dituzte, herriko hiru gazte auto istripuz hil izanagatik.

Gainontzeko ekitaldiei martxoaren 2an ekingo diete eta egun horretan Patxi Uharte komikigilea izango da Anguleri jauregian 20:00tik aurrera.

Beste alde batetik, Arrekikili jaia egingo da martxoaren 3an, 20:00etan, Hori Bai gaztetxean. Jaialdian euskara elkarteen web orrialdea (www.arrekikili.org) aurkeztuko da. Luntxa ere eskainiko da. Horrezaz gainera, J Tapia musikariak, laster kaleratuko duen diskoa aurreratuko du.

Kukubiltxo antzerki taldeak amaiera emango dio Kultur Asteari. Horrela, bada, Dir-Dir umeentzako antzezlanak eskainiko du martxoaren 4an, 17:30etan, Hori Bai gaztetxean.

Aurtenetxek eta Zubiagak Lezamako Torneoa irabazi dabe

Otsailaren 17an Lezamako Esku-pilota Binakako XLVII. Torneoa izan zan herriko frontoian eta Aurtenetxe eta Zubiaga pilotari bizkaitarrak Nafarroako Mundiñano eta Iparragirre pilotarien aurka aritu ziran bertan. Bizkaitarrek 22-15 irabazi eben.

Gazte Plana aurrera doa Loiun

Multiabentura-bidaia egin eta bekadunen poltsa sortuko da, besteak beste

Loiuko Udalak herriko gazteekin konpromisoa hartu du Gazte Planaren bitartez, eta hurrengo hilabetei begira, hainbat ekintza jorratuko ditu plan horren barruan. Horrela, bada, Huescako Murillo de Gállego herrira multiabentura-bidaia antolatu du martxoaren 24tik 26ra bitarteko astebururako. Bidaia 14tik 35 urte arteko gazteei zuzenduta dago eta bidaia horretan hainbat abentura-kirol praktikatzeko aukera edukiko dute: alpinismoa, pintballa eta raftinga.... Martxoaren 3ra arte eman daiteke izena Udaletxean. Loiugazte txartela dutenek 75 euro ordaindu behar dute; gainerakoek, 156 euro. Prezioaren barruan daude autobusezko joan-etorria, pentsio osoa eta kirol jarduerak.

Beste alde batetik, herriko gazteekin lan-poltsa osatuko da, umeak jagoteko, eskola partikularrak emateko eta antzeko lanak egiteko. Beste alde batetik, bekadunen poltsa bat ere sortuko da, gazteek Udaletxean bertan edo Udalarentzat lan egiten duten enpresetan praktikak egin ditzaten hilabete bian.

Loiun zahar-etxea eta eguneko egoitza zabalduko dira laster eta Udalak geriatriako



erizaintzako laguntzaile izateko ikastaroa antolatu du, Behargintzaren bitartez. Ikastaroa 18 urtetik gorakoei zuzenduta dago eta apiriletik ekainera bitartean eman go da. Izena Behargintza Txorierriren egoitzan (Berreteaga industrialdea, 13 A, Sondika) eman daiteke martxoaren 15era arte. Argibide gehiago **Udaletxean** edo **94 453 63 70** telefono zenbakian.

Zamudioko liburutegia, 10 urte zabalik

Zamudioko liburutegiak 10 urte bete ditu aurrean eta urteurrena ospatzeko, Liburutegien erakusle-hoa ekintza antolatu du, herriko zenbat komertzio eta dendak lagunduta. Eta martxoan ere ospakizunekin jarraituko dute. Horrela, bada, Oihulari Klow taldekideek *Alfonbra magikoa* ikuskizuna eskainiko dute martxoaren 4an, 12:00etan, liburutegian. Saioa 5 eta 11 urteren bitarteko umei dago zuzenduta.



Testua: Amagoia Guezuraga

PADI zerbitzua izango dute Larrabetzun

Haurren Hortzak Zaintzeko Programa (PADI) Osakidetzaren zerbitzua da eta 6tik 16 urte arteko gaztetxoei zuzenduta dago. Programa horren barruan sartzen direnei doan egingo zaie edozein hortz-konponketa. PADI Zerbitzua Oguiza hortz-klinikan emango dute. Klinika martxoan irekiko da eta nagusiei ere odontologia-zerbitzu integrala eskainiko diete.



Emakumezkoaren Egunaren inguruko ekitaldiak, Txorierrin

Txorierrik ere Emakumezkoaren Nazioarteko Egunarekin bat egin eta hainbat ekitaldi antolatu dituzte bertoko Udalek eta emakumezkoen taldeek martxoaren 8an inguruan. Horrela, bada, Derioko Sutondoan elkarateak *Las andanzas de dos pícaras pellejas* lana antzeztuko dute martxoaren 10ean, 20:00etan, Sondikako Kultur Etxean. Horrezaz gainera, emakumezkoen eskubideei buruzko hitzaldia egingo dute Derioko Larrabarri baserrian, martxoaren

7an. Hitzaldia Olga Macías abokatuak emango du eta 17:00etan hasiko da. Hilaren 9an, *Las chicas del calendario* filmaren gainean arituko dira Lola Díazekin (Larrabarrin, 17:00etan), eta kontzentrazio isila egingo dute hilaren 11n, 13:30etan, udaletxearen aurrean. Horren ostean, bazkide guztiak bazkaltzera joango dira. Beste alde batetik, Derioko Udalak XXI. mendean emakumezkoaren paperari buruzko mahai-ingurua antolatu du martxoaren 8an, 19:00etan, Larrabarrin. Zamudioko Udalak ere Emakumezkoa eta familia mahai-ingurua egingo du egun horretan, 19:00etan, dorretxean. Ana Ureta Aldarte elkarteko buruak eta Olga Macías abokatuak parte hartuko dute bertan. Eta Lagunandre elkarteko emakumezkoek bazkaria izango dute martxoaren 4an.

Lezaman, Emakumezkoaren Festa antolatu dute Udalak eta Laiak elkarateak martxoaren 8an, 20:00tik aurrera, Goitioltzako Txokoan. Virginia Imaz pailazoak saioa eskainiko du eta euskal dantzen agerraldia ere egongo da, besteak beste. Autobusa eta guzti jarriko dute, txokora joateko.

Azkenik, Larrabetzuko Anguleri jauregian “Emakumezkoa eta kirola” erakusketak izango da martxoaren 6tik 16ra bitartean, Udalak eta BBK-k antolatuta. Hilaren 8an, Kuku Bazar-Divertentek taldeak *Bagara Nor* antzezlana aurkeztuko du, 18:00etan, Angulerin.



Samina eta atsekabea, Larrabetzun



*“Astelehenean, jendetza
batu zen Herriko
Plazan goizean zein
arratsaldean, familiei
euren samina eta
elkartasuna adierazteko”*

Otsailaren 28an, martitzenaz, jendetza handia batu zen Larrabetzuko Andra Mari elizan, auto-istripuz hil ziren uriko hiru gazteri azken agurra emateko.

Istripua otsailaren 26an, domekaz, iluntzeko zortziak inguruan izan zen Goikoelexalde auzoan. Autoa bidetik atera zen, segurtasun-hesia zeharkatu eta maldan behera erori zen. Sei lagun zihoazen autoan eta horietako hiru –Iñaki Gallastegi 13 urtekoa, Gorka Fernandez 14 urtekoa eta Alain Romero 17 urtekoa- momentuan hil ziren; bitartean, beste hirurak zauritu ziren. Gidariak eta pilotu-lagunak –Iban Joyera 19 urtekoak eta Oinatz Dudagoitia 17 urtekoak, hurrenez hurren- zauri arinak

izan zituzten eta Galdakaoko ospitalera eraman zituzten. Gazte biei medikuaren alta eman diete. Morgako Patrick Madariaga zauriturik larriena izan da: Gurutzetako ospitalera eraman eta Zainketa Intentsiboetako Unitatean dago lerro hauek idazteko orduan. Patrickek 15 urte ditu.

Larrabetzun ez da inoiz hori bezalako tragedia handirik izan eta samina eta atsekabea zabaldu dira uritarren artean, baita Txorierri osoan ere. Horrela, bada, hainbat lagun, ikaskide eta txorierritar hurbildu ziren Herriko Plazaraino astelehenean, goizean. Udalak ezohiko batzarra egin zuen eta Tomas Ordeñana Larrabetzuko alkateak familiekiko atxikimendu-komunikatua

irakurri zuen, herritar guztien izenean. Halaber, behar duten edozertarako laguntza eskaini zien familiei eta dolu-egun bi –astelehena eta martitzena- ezarri zituen. Arratsaldean, Herriko Plazan batzeko deialdia egin zien herritarrei eta jendetza bildu zen bertan, familiei euren samina eta elkartasuna adierazteko. Athleticeko ordezkariak ere parte hartu zuen kontzentrazioan, izan ere, Iñaki futbol talde horretako jokalaria zen gazte-mailan. Beste alde batetik, Gorka Sondikako futbol taldea zebilen eta Alain Olarreta Larrabetzuko Pilota Eskolako pilotaria zen. Besteak ere bertan ibilitakoak ziren.

Auto-istripuaz hildako gazteak Txorierri Institutuko ikasleak ziren; beraz, euren heriotzak eragin handia izan du Txorierri guztiko gazteengan. Hori dela eta, bertako irakasleek klaustro berezia egin zuten egoera eta eragina aztertzeke. Eta beste neurri batzuen artean, laguntza psikologikoa eskatu diote Hezkuntza Ordezkaritzari, irakasleei ikaskideen heriotza gainditzeko laguntzeko.

“Berdintasunerako prozesuak bizkortzeko beharra dugu”

Izaskun Moyua Emakunde/Emakumearen Euskal Erakundearen zuzendari izendatu zuten iaz. Oñatiarrak beharrezkotzat jotzen du Emakumearen Eguna izatea, Historian lortutako eskubideak ospatzeko, “baita oraindik lortzeke ditugunak aldarrikatzeko ere”.

Zein unetan dago Eusko Jaurlaritzako Gizon eta Emakumeen arteko Berdintasunaren Legea?

Garapen-prozesuan dago: Legearen fruitu batzuk ikusgai daude, eta beste batzuk denboraren poderioz ikusiko ditugu. Horrela, bada, emakumearen partehartzea indartu da arlo sozio-politikoan, eta gaur egun emakumeon eta gizonen presentzia parekoa da Parlamentuan eta Gobernu Kontseiluan. Era berean, Donostiako banderaren jasotze eta eraistean emakumeek ere parte hartu dute eta Gobernu Kontseiluak neurriak hartu ditu, pertsona guztien duintasuna errespetatu dadin publizitate-kanpainetan.

Dena den, aurretik dugun bidea luzea da oraindik eta bide hori Legeak lagunduta ibiltzea oso inportantea da.

Ikerketen arabera, gaur egungo rol sozialak eta duela 40 urtekoak oso antzekoak dira...

Kontuan hartu behar da patriarken sistemaren menpean hainbat eta hainbat urte daramatzagula. Sistema horrek sexuaren arabera banandu du lana eta erlazio hierarkikoa ezarri du gizon eta emakumeon artean. Ez da erraza pentsamoldeak eta jarre-
rak aldatzea, eta beharrezko aldaketa-
estrukturak ere ez dira egun batetik beste-
ra suertatzen. Aurrerapausoak ematen



gabiltza, baina egia esan, prozesuak bizkortzeko beharra dugu.

Gizonen eta emakumeen arteko berdintasuna erronkarik handiena da justizia, aurrerakuntza eta demokrazia bidean egon

“Ereduak aldatzea zaila da, hala ere, kalte egiten diguna baztertzea eta aberasten gaituena barneratzea posible da”

nahi duen gizarte batentzat. Ereduak aldatzea zaila da, hala ere, kalte egiten diguna baztertzea eta aberasten gaituena barneratzea posible da.

Bide onetik goaz?

Emakumeok oso bide onean gaudela uste dut. Jasotako diskriminazioen gaineko hausnarketa egin dugu, gure eskubideen alde borrokatu egin dugu eta munduko populazioaren erdia baino gehiagoaren sufrimenduak gobernuen agendan lehentasuna izatea aldarrikatu egin dugu. Lan merkatura sartu eta aldaketak proposatzen ari gara egitura sozialetan zein pertsonaletan, profesio-bizitza, etxekoa eta pertsonala uztartu ahal izateko.

Zein da etorkizunerako erron-

ka?

Irtenbideak topatzen jarraitzea. Bideak zabaltzen jarraitzea ezinbestekoa da, baita emakumeen arteko solidaritatezko loturak sendotzea ere. Era berean, berdintasuneko gizartea nahi duten gizonekin topo egin behar dugu; horren alde borrokatzen duten gizonekin.

Gizartearen erronka berdintasunean bizi ahal izatea da, baina aldaketak ez dira gauetik goizera agertuko. Pertsona askoren parte hartzea ezinbestekoa da, prozesua bizkortzeko eta gizonak eta emakumeak berdintasunean bizi ahal diren gizartea lortzea.

“Betebehar berberak ditugu; eskubide berberak, berriz, ez”



Graciela Mollano eta Luminita Inbir 2002ko abenduan ailegatu ziren Txorierrira. Biek alde egin zuten herritik, etorkizun hobearen bila euren familia-rentzat. Luminita eraikuntzako ingeniaria zen Errumanian, eta Graciela funtzionarioa Argentinan. Berton etxeko langile modura egiten dute lan.

Zergatik Zamudiora?

Berton topatu dugulako prest egon den norbait atzerritarrei pisua alokatzeko. Zamudio oso herri lasaia da, erabat aproposa seme-alabak hazteko.

Paperak, lana, ziurgabetasuna... Arazo horiek guztiak handitu egiten dira emakumeen kasuan?

G: Seme-alabak izanez gero, bai, eurei adi egon behar delako. Izan ere, ahulenak dira, eta ez badirudi ere, izugarri deprimitzen dira.

L: Semea oso txikia da oraindik, eta ez da egoeraz jabetzen. “Arraro” begiratzen dioten sententzioa dut batzue-

tan...

Ikasketak dituzue; hala ere, etxeetan egiten duzue lan...

L: Errumanian banituen langileak nire kargu, eta berton ez zaigu aukerarik ematen gure balioa erakusteko. Enpresa batean lan egiteko, paperak eskatzen dizkigute; baina lan egin ezean, ez dituzu paperok lortzen... Eta lan batzuetarako ez dute atzerritarrik kontratatu nahi; aitzakiak jartzen dizkigute. Ezkutuko ekonomian lan egin baino beste erremediorik ez daukagu. Dena dela, ezin naiz kexatu: lan-kontratua egin didate.

G: Nik ez daukat. Hala ere, egingo balidate, ez dakit mereziko ote lidakeen. Batzuek uste baino askoz diru gutxiago irabazten dugu. Baina ni ere pozik nago, gauzen alde positiboa ikusten saiatzen naiz-eta.

Tratu ezberdina jasotzen duzue lanean, bertoko emakumeen aldean?

Baina nagusiek ez dute hemengo emakumerik kontratatu nahi, guk baino lan-eskubide gehiago aldarrikatzen dituztelako. Eta guk ere ezagutzen ditugu geure eskubideak, baina egoerak, askotan, horiei guztiei uko egitera behartzen gaitu. Antza, betebeharrak berberak ditugu, baina ez eskubide berberak... Hala ere, gu ez gara etorri inori lana kentzera; hori

“Egonkortasun ekonomikoa, psikologikoa eta fisikoa lortu nahi dugu geure seme-alabentzat”

argi eduki. Gaur guri dagokigu hemen izatea, baina hemengo batzuek ere erbestera joan behar izan zuten antzina. Eta espero dugu zuek inoiz egin behar ez izatea.

Zein da zuen errebindikazioa?

Gizonek dituzten lan-eskubideak geuk ere izatea. Emakumeok mehatxutzat hartzen gaituzte, seme-alabak ditugulako edo izan ditzakegulako inoiz. Baina hori ez da ez Txorierriko arazoa, ez Euskal Herriko arazoa; mundu osokoa baizik.

Zein da zuen etorkizunerako ametsa?

Egonkortasun ekonomikoa, psikologikoa eta fisikoa lortzea geure seme-alabentzat. Herri zibilizatu batean bizi daitezten, aukerak izan ditzaten... Izan ere, herritik atera eta jasan behar izan duzun guztiaz konturatzen zara orduan. Latza da batzuetan: lana, etxebizitza, injustiziak... Baina oztopoak gaingitu eta aurrera egin behar da.



Olga Fraguas, kamioilaria

“Askok harrikoa egitera bidali naute”

Olgak kamioiak eta autobusak gidatzeko baimena 1997. urtean atera zuen. “Senarra garraiolaria da eta garai hartan lan nahikoa zegoen biontzat”. Lezamarra 2003. urtera arte ibili da garraiaketa internazionalak egiten.

Lehenengo eta behin, familiaren erreakzioa...

Zoratuta nengoela, lan hori ez zela egokia niretzat, banaketa-furgoneta txiki bat har nezakeela... Baina nik oso argi nuen eta baimena atera nuen. Oso burugorria naiz.

Eta orain beste kamioilariarena...

Denetarik entzun behar: “Emakumezkoa izan behar”, “Hobeto izango zinen etxean, harrikoa egiten edota seme-alabak zaintzen”... Komentario guztiz sexistak egin dizkirate, baina beste kamioilariekin oso harreman gutxi izan dudanez, niri bost. Eta irrati-emisoratik komentarioren bat eginez gero, emisorea amatatu eta listo!

Zer erantzuten zenien zuk?

Nahi nuelako egiten nuela eta eurek ere hobeto legokezela harriak txikitzen, behar-bada. Hitz politak ere bota dizkirate: “Izatekoa zara!” eta horrelakoak... Baina gehienek harrikoa egitera bidali naute (kar, kar). Kamioilarien artean emakumezkoak badaude, baina gutxi dira oraindik eta gehienak senarrarekin ibiltzen dira kamioian. Nik garraiaketak egiten nituene-

an Euskal Herriko bost emakumezko baino ez ginen.

Kamioilariarena lan gogorra da; emakumezkoa izanda, askoz gogorragoa...

Bai, higiene intimoari dagokionez batez ere. Behar honetan ordutegiak bete behar dira zorrozki eta geldialdi gutxi egin daitezke. Paper-zapi bustiekin konpondu behar nintzen, jateko geldialdia egiten genuenean aprobetxatu, lantegietan dutxa hartu... Baina lana gustatzen zitzaidan eta senarrarekin joaten nintzen, gainera. Horrek asko laguntzen du. Beste alde batetik, dirua irabazten denean, gogortasuna arindu egiten da.

Zer erakutsi diezu zeure buruari? Eta besteiei?

Oso harro nago neure buruaz, trailer bat eramateko gai naizelako. Erronka handia zen niretzat. Eta besteiei ere gauza naizela erakutsi diet. Baina hori sekundarioa da; nire buruari gauza naizela erakutsi diodala da inportanteena. Kamioia gidatzeari utzi nion, gaur egun konpetentzia handia eta lan gutxi dagoelako. Eta egia esan, kamioia berriro hartzeko irrikan nago.

Berdintasunik dago institutuan?

A eta L: Orokorrean, bai. Baina mutilek baztertu egiten gaituzte kirol arloan, izan ere gu txarragoak garen kontzeptua dute.

P: Eta are gehiago, beheko mailatako neskek ez dira mutilekin lehiatzera ausartzen eta batzuetan derrigortu behar ditugu. Beste alde batetik, zelai eta leku zabal guztiak hartzen dituzte mutilek patio orduan; neskak, berriz, izkinetan edota korruetan izaten dira. Eta ez da planteatzen hori beste era batean izan daitekeenik. Gaur egungo hezkuntza mistoan galdu egin duzuela uste dut.

Ados horrekin?

Jada ez gara patiora irteten, baina beheko kurtsoetan izan garenean bai, horrela gertatzen zen: mutilak futbolearen aritzen ziren eta gu eskaileretan eserita. Ez ginen animatzen, gure buruari ez genion ezta planteatu ere egiten.

Eta klase barruan?

P: Mutilak atentzio gehiena biltzen dute, onerako zein txarrerako. Neskak isilik gelditzen dira eta klasean ekarpen aberasga-

*“Institutuak
berdintasuna landu
beharko luke, beste gai
batzuekin egiten
duen moduan”*

rriak egiteko modua izan arren, ez dira ausartzen. Eta ausartzen direnean “repipi” edo “empollona” esaten zaie. Galderaren bat bota eta mutilak erantzuteko prest daude beti; neskei, berriz, zuzenki galdetu behar zaie. Arraroa da euren iniziatibaz erantzutea.

A eta L: Klasean parte hartzeko ohiturarik ez dugu eta galdetzen zaigunean, kosta egiten zaigu. Mutilak, oster, ez dute latsaririk.

Jasotako hezkuntzaren ondorioa izan daiteke hori...

P: Txikitatik mutilekin izan zarete eskolan;

“Mutilek hartu dute protagonismoa hasiera-hasieratik”

Pilik 27 urte daramatza Irakaskuntzan eta DBHko irakaslea da.

Ainhoa eta Leire 2. Batxilergoko ikasleak dira.



hala ere, eurek hartu dute protagonismoa hasiera-hasieratik. Eta ohitura bihurtu da.

Zein gabezi dago Institutuan?

A eta L: Institutuak berak ez du berdintasunaren gaia lantzen eta apur bat gehiago zabaltu beharko zen, beste kontu batzuekin egiten den moduan.

P: Egiten duguna baino gehiago egin daitekeela uste dut. Emakumeok erlaxatu egin gara, konformatu egin gara. Teorian berdina gara, eskubide berdinak ditugu eta irakaskuntza mistoa denez, nahikoa dela ematen du, baina ez da horrela. Mutilak oro har ez daude euren terrenoa galtzeko

prest; geuk borrokatu behar dugu hori.

Zein da erronka, beraz?

A eta L: Lehenengo eta behin, emakumeok kontzientziatu egin behar dugu, askok egoera onartu egiten dutelako. Eta gauzarik inportanteena ez onartzea da.

P: Ez dakit duela 15-20 urte egindako kanpainak berrartu beharko genituzkeen. Ez dakit, kanpainen aldekoa ez naizelako, izan ere momentuko eragina baino ez dute izan. Eskolan egin dezakegu lan, baina ezinbestekoa da atzetik dagoen errealitateak ere –gurasoak, telebista...- guri behar horretan laguntzea.

Genero, Konstituzio eta Autonomia Estatutuak Kongresua, Madrilen 2005eko apirilaren 12-14an. Jasone eskuman dagoen emakumea da, zuriz eta urdinez jantzita dagoena, hain zuzen ere.



Jasone Astola, Konstituzio-zuzenbideko Sare Feministako kidea

“Emakumeok ikusezinak gara konstituzio-zuzenbidean”

Erandio Goikoko Jasone Astola konstituzio-zuzenbideko irakaslea da EHUUn. Beste jurista batzuekin Konstituzio-zuzenbidearen Sare Feminista osatu, eta konstituzio testuetan eta gainerako lege testuetan emakumeak aipatzen diren edo ez, aztertzen dabilta.

Zergatik azterketa hori egiteko beharra?

Zuzenbidearen muina hitza da, zer esaten duten edo esaten ez duten lege-testuek. Eta emakumeak eta gizonak ez dute tratatu bera izan testu horietan. Are gehiago, emakumeok ikusezinak gara konstituzio-zuzenbidean. Gizonek jarri zituzten konstituzio-zuzenbidearen oinarri teorikoak, emakumeak kanpoan utzita. Espainiako Konstituzioan une bitan baino ez dira gizonak eta emakumeak aipatzen: ezkontzari buruzko artikuluan eta koroarako ondorengotzari dagokion puntuan. Gure ustez, XXI. mendean konstituzio testuek adierazi behar dute emakumeok eta gizonak, berdintasun osoz, osatzen dugula edozein herri.

Nola bete hutsune hori?

Une honetan Konstituzioaren kontrakotzat hartu dira hainbat hauteskunde-lege, xedatzen dutelako hauteskunde-zerrendetan

gizonezko eta emakumezkoen kopurua antzekoa izatea. Eta horretarako hainbat arrazoi eman dira: horien artean herria zatitzen dutela, herriak ez duela sexurik... Holako gauzak esaten dutenek demokrataizat hartzen dute euren burua, eta normalizat eta egokitzen hartzen dute gizonezkoen eskuetan egotea estatuetako aginteak. Horregatik berridatzi behar ditugu Konstituzioa eta autonomia estatutuak. Emakumeok eta gizonak osatzen badugu herria, denon artean erabaki beharko genuke edozein gauza.

Konstituzioa eta legeak gizonezkoek egindakoak dira, hor dago koska...

Begiratu agintarien argazkiak. Bereziki interesgarria da Europar Batasunerako Konstituzioa bultzatzeko egin zena. Non gaude europar emakumeok? Eta txarrena da argazkia testuan agertzen denaren adierazlea dela.

Emakumeok gizonezkoen munduan gizarteratu behar izan gara...

Gizonezko bihurtu behar izan dugu, berdina izateko. Baina munduak ez gaitu berdintzat hartzen oraindik. Ekonomia zientzia moduan osatzen hasi zenean, ekoizpea hartu zen ardaztat eta ekonomiatik kanpo geratu ziren ernalketa, zaintza eta emakumeok egiten dugun hainbat lan. Horregatik, garrantzi handia du herria osatzen duten pertsonen sexua aipatzeak eta sexu bakoitzaren historia kontatzeak. Gauzak ez dira onera joango ez badugu ikusten bi sexuotako pertsonak, uste, gogo eta balio ezberdinekin, osatzen dugula mundua, eta bi sexuen artean erabaki behar dugula zein eratako mundua eratu nahi dugun. Herria osatzen dugun emakume eta gizonen arteko hitzarmena sinatu barik dago oraindik, eta horren bila ari gara batzuk behintzat.

“Inon justizia egin bazaigu, literaturan egin zaigu”

Emakume gutxi argitaratzen dituzte liburuak Euskal Herrian, baina egon badaude, eta Toti Martinez de Lezea da idazle garrantzitsu horietako bat. Emakumeaz eta literaturaz aritu gara larrabetzuarrarekin.

Emakumea protagonista modura: justizia egin dio literaturak?

Inon justizia egin bazaigu, literaturan egin zaigula esango nuke. Historian, nobeletako pertsonaia nagusi asko emakumezkoak izan dira: drama grekoetako heroinak, Shakespeareren heroinak... Izaera gogorreko emakumeak dira, eta boteretsuak askotan... Baina euren garaian, noski, beste era batekoa zen errealitatea; protagonismo handiagoa zuten literaturan egiazko bizitzan baino.

Eta idazle modura orain: XIX. mendetik aurrera emakumearen presentzia nabarmenduz joan da...

Baina lehenago ere bazeuden emakume idazleak. Izengoitiarekin sinatzen zuten; izan ere, ezinezkotzat jotzen zen emakume batek idazten jakitea. Horrela, bada, Historiako lehenengo nobelagilea emakume japoniar bat izan zen XI. mendean:

“Gurea oso lan zalantzarria da, eta emakume gehienak ez daude ziurgabetasun horretan sartzeko prest, beharbada”

Murasaki, hain zuzen ere. Eta, XII. mendean ere, Bingengo Hildegard daukagu. Pizango Kristina bizimodua idatziz atera zuen lehenengo emakumea izan zen XIV. mendean... Egia da ez zutela gizonek beste idatzi, baina gizon idazle asko ere ez zegoen. Eta emakumeak, gainera, zokoratu egiten zituzten etxean edota komentuan. Idatzizkoa baino lehen, ahazkoa izan zen literatura, eta Euskal Herrian ezagutzen diren lehenengo “autoreak” emakumezkoak izan ziren: Milia Lasturkoa, Santxa Hortiz Orokoa eta Santxa Otxoa Ozaetako.

Hala ere, emakume gutxi argitaratzen dute...

Dirudienez, idazleetan gizon gehiago daude emakume baino, gizon gehiagok irabazten dituzte sariak... Baina Euskal Herriko idazle-erregistroari erreparatuz gero, konturatuko gara emakume ugari daudela, eta idazketa-tailerretan ere emakume askok ematen dute izena. Zergatik argitaratzen dute gizonek baino gutxiago? Ba, ez dakit. Gurea oso lan zalantzarria da: liburuak amaitu, eta ez dakigu noiz argitaratuko duten, ezta argitaratuko ote den ere. Diru-iturri finkoa behar da hilerio, eta emakume gehienak ez dira egoten ziurgabetasun horretan sartzeko prest,

tik, berriz, nobelari, saiakerari eta olerkiari buruz hitz egiten zen, eta kito. Nobela bat, zergatik dago emakumeei zuzenduta? Emakume batek idatzi duelako?; edo, nahiz eta gizon batek idatzi, amodiozkoa delako? Esaten da, akaso, gizonek idatzitako nobelak gizonei zuzenduta daudela? Hori guztia falazia da. Emakumeok gizonek idatzitako literatura irakurtzen dugu, eta alderantziz.

Zer dute oraindik lortzeko emakumeek literaturan?

Gizonek duten presentzia geuk ere arlo guztietan izatea: literatura-epaimahaie-





“Premiazkoa da norberarengan sinistea”

Langilea izanik ere, etengabeko ikasketa prozesuan murgilduta dago Ainhoa Bilbao larrabetzuarra. Etsipena zer den ez du ezagutzen, eta eskubide berdintasun grina du zainetan.

Emakume gazte, langile eta aurrerakoia zaitugu. Lizentziatu ostean ez zara titulua esku artean izatera mugatu, gogor borrokatu izan duzu ...

Lizentziatu baino lehen hasi nintzen borrokatzen. Unibertsitaria nintzenetik argi izan dut gogor ikasi behar nuela. Giza Elikadura eta Dietetika ikasten hasi nintzen EHU-ko Farmazia-Fakultatean. Diplomatura eskuratu ondoren, Elikagaien Zientzia eta Teknologia lizentziatura ikasteari ekin nion; bitartean, elikagaien zientzia eta teknologia arloetako ikertzaile

aritu nintzen, baita Idiazabal gaztari buruzko proiektu batean parte hartu ere. Horri esker, Premio Extraordinario de Fin de Carrera eskuratu nuen. Ondoren, GAIKER-ren sartu nintzen bekadun gisa. Gaur arte.

Neketsua suerta al zitzaizun, gaur egun duzun lanpostua lortzea?

Zorte ona izan dudala aitortu behar dut. Lizentziatu eta sei hilabetera, ikertzaileak hezteko beka bat lortu nuen. Aprobetxamendua erabatekoa izan zen, lan aukera aberats baten aurrekaria.

“Giza eskubideen berdintasuna ez da betetzen, hori dugu gizarte aurreratuaren kontraesana”

Emakumeen langabetu tasa gizonezkoen bikoitza dela plazaratu berri du INEM-ek. Iaz baino 22.796 emakume gehiago daude lanik gabe. Lan elkarriketetan, sexu-diskriminaziorik jasan izan duzu inoiz?

Zorionez, ez dut horrelakorik jasan. Dena dela, zeharkakoa izaten da diskriminazioa, lan baldintzak zein lan garapenak oztapatuz egiten dena. Hala ere, emakume gazte, prestatu eta lotura gabea dugu ezarri den profila. Giza eskubideen berdintasuna ez da betetzen, hori dugu gizarte aurreratuaren kontraesana. Berdintasun erreala lortzeko lanean jardun behar dugu.

Bekadun gisa sartu zinen. Zein da pairatu duzun garapena?

Molekula biologia zein bioteknologia lanean aritu nintzen bertako laborategian. Horrezaz gainera, hainbat Ikerkuntza eta Garapen proiektutan partaide izateko aukera izan dut. Horrek etengabeko prestakuntza ziurtatu izan dit: gaur egun hain beharrezkoa den birziklatze prozesua.

Egungo lan sisteman zaila da oreka lortzea, etorkizuna baikortasunez ikusten duten horietarikoa zaitugu...

Nahi bai, baina errealitatea guztiz bestelakoa da. Aldi baterako kontratu ez duinak eta lan baldintza eskasak dira nagusi gaur egun. Oreka gabezi horrek kaltetu egiten du norberaren maila pertsonala.

Erronka guztien aurrean gogotsu eta ikas-teko prest agertzen zara bizitzaren aurrean. Zer behar du emakume batek langile legez arrakasta eskuratzeko?

Premiazkoa da langile prestatua eta fina izan eta gogotsu ekitea. Norberarengan sinestuz eta nor bere buruaren jabea izanez. Hau da, norbera nor den, nora doan eta bizitzan zer egin nahi duen argi edukitzea.

Testua: Maitane Urrutikoetxea

“Obra handiak egitea dot amets”

Derioko frontoi ondotik pasatuz gero, gatxa da kanpoaldeari ez erreparatzea. Hormigoizko horma motzak ziranek beste dimentsio bat hartu da-be, izan be, pintatzeaz ganera, burdinazko eskultura handiak itsatsi dira bertara. Eskulturen egilea aurkitzeko, ez dago urrun joan beharrik. Eneritz frontoi ondoan bizi da. Emakumea da eta gaztea.



Testua eta argazkia: Bestorrene

Noiztik jatortzu artearekiko zaletasuna?

Beti izan dot. Txikitan marrazki lehiaketak irabazten nituan ikastetxean, baina familia-ko gauza da: ahizta nagusiak be zaleak dira. Arte Ederrak ikasi eta Diseinu Grafikoan espezializatu naz.

Zer egiten dozu arte munduan?

Arte grafikoan eta lanean murgilduta nago, ez daukat besterik egiteko astirik. Inoiz pintatu be egin dot, baina oso gogorra da, denbora asko eskatzen dau eta. Gaur egun ordenagailu bidezko diseinuak egiten dodaz. Inprenta batean nago eta danetarik egiten dot: konposizinoa, make-tazinoa, katalogoak, aldizkariak...

Zer egin dozu orain arte?

Gauza txikiak, baina asko: hainbat herritako jaietako kartelak, Udaltalde 21eko logo-tipoa, muralak Derioko tabernetan eta kiroldegian... Eskatzen deustena.

Nondik etorri zan frontoiko eskulturak

egiteko kontua?

Frontoian zerbait egin gura ebela enteratu eta neuk proposatu neban. Aurretik fakultateko ikasgai baterako lan bat egin behar izan genduan: elementu arkitektoniko bat apaintzea eta nik Alonsotegiko frontoia aukeratu neban. Beraz, figura batzuk sor-

“Ez dot desberdintasunik sumatu, emakumezkoa izateagaitik”

tuta neukazan, baita alanbrezko maketa be. Derion aurkeztu eta gustatu egin jakezan. Figurak egokitu egin behar izan dodaz, Derioko frontoia eta Alonsotegikoa desberdinak diralako. Marrazkiak egin eta Larrondoko enpresa batean burdinazko

xaflak egin zituen zatika. Xaflok soldatu, pintatu eta euren lekuan jarri ziran, garabi batek lagunduta. Tona bat burdina inguru izango da, guztira.

Neska zara, gaztea. Arazorik egon da, lan hori zure eskuetan uzteko?

Ez, ezagutu egiten nabe eta proiektu osoa zehaztuta neukan, ganera: aurrekontua, egiteko era, epeak... Eta ez dot desberdintasunik sumatu, emakumezkoa izateagaitik: fakultatean danetarik dago, mutilak eta neskak.

Tendentziarik jarraitzen dozu? Zer dozu gogokoan?

Tendentziak egon, badagoz, baina ni “neure kontura” noa. Egia esateko, ez dot diseinugilerik jarraitzen; ez nago oso informatuta, hori niretzat akats bat izan arren. Artisten artean, Serra, Calder... dodaz gustuko. Obra handiak egitea dot amets, gus-tura egingo neukez.

“Seme-alabek ez deuskue erreleborik emongo”

Loiuko hiru baserritar honeek emakumezko eta baserritar izateaz arro eta zoriontsu agertu dira eta jarraitze-ko gogoz, ganera. Baina errealitate latza be erakutsi deuskue.



Testua eta argazkia: Belen Gana

Gero eta baserritar gitxiago dago, baina zuek jarraitzen dozue baserritarrak izaten...

Baserrian ez dago ordurik baina gustatzen badatzu sari txiki bat atara leike. Pena da ez dagoela nahiko ataratzerik eta gure seme-alabek ez deuskuela erreleborik emongo: dirua irabazteko, beste lantoki batera joan behar da. Inork ez dau gure behar egiteko lurrik. Orain landak garbita-ko paga egin behar da eta lehen belarra be erosi egiten zan. Lehen, soloan behar egin-da sueldu bat ataratzen genduan, baina, orain erdia be ez. Dana dala guri gusta

“Emakume ezkondua bazara, gizonak baino gehiago irabaziko dozula deklara behar dozu”

eginten jaku.

Zuek noztik eta zertara dedikatzen zarie?

Itziar ezkondu ostean hasi zan baserriko beharrakaz. Lehenago Bilboko denda batean ibili zan beharren, alaba jaio arte. Ganadugaz eta bendejagaz ibiltan zan

familiagaz; orain barazkietara bakarrik dabil. Gu (M^aNieves eta M^a Sol) beti dedi-ka gara baserrira eta M^a Solek ondino be aite laguntan dau soloa idiekaz goldatzen. Nik soloan ibiltea dot gustokoago, horrezaz ganera, enbasatzeko industria txiki bat daukagu, oraintxe geldirik badago be.

Antxina, hirurok goizeko 3 edo 4etarako Merka-Bilbora joaten ginan saltzera; goizeko 7etarako behiek eratzi, eta ondoren, etxeko lanak eta solora. Gaur egun, Merkara asteen birritan goaz, baina al- ma-zen jakin batera. Itziarren etxean oilo batzuk eta txerrie baino ez dagoz eta geu- rean behi bat, txala eta 5 idi baino ez. Inguruko baserri askotan gorrea kendu eta txokoak egin dira.

Kanpotik datorren jenero askok konpe- tentzia egiten dau?

Txarrena da bertoko jenero lez eta merkea- go saltzen dela. Gernikako piperrak Almeria eta Marokotik datoz. Hazie erosi, erain, landatu, jagon, batu, obreruek pagau, enbasatu eta honaino ekarteak be diru balio dau... Eta halan eta guzti geurea baino merkeago, hori zelan izan letike?

Diru laguntzarik edo bestelakorik eskatu izan dozue?

Irabazi mistoak direnean, honetan be dife- rentea da gizonak ala andrak eskatu. Emakume ezkondua bazara, gizonak baino gehiago irabaziko dozula deklara behar dozu eta holan paga haziendarako zergak; baina gizona bazara, ez dekozu andreak baino gehiago irabaziko dozunik azaldu behar. Halandaze, atara kontuak.

Zuen seme-alabek jarraituko dabe hone- tan?

Etxerako beste egiten ikasi dabe, baina gaur egun pizza, hanburgesa eta holakoak dagoz modan...

Janari arinaren kultura zabaldu da gure artean, eta zertarako erain indabak, gero inork ez baditu preparatuko?

“Tradizioa mantendu behar da euskal dantzetan”

Dantzak emakumezkoen gauza direla ematen du...

Bai, oro har, mutil gutxi daude dantza taldeetan. Nahiago dute kirolean edo beste ekintza batzuetan aritu, antza. Ez zaie neskekin dantza egitea gustatzen. Ume txikiei neska eta mutilen dantzak irakasten zaizkie, baina mutikoek, esate baterako, ezpatak ikusiz gero, nahiago dute ezpata-dantza dantzatu, neskatoekin batera aritu baino. Handiago egiten direnean dantza mistoak nahi izango dituztela esaten diet nik... Dena den, mutilak baino neska gehiago dago dantza taldeetan, eta hala ere, talde gehienetako arduradunak gizonezkoak dira.

Eztabaida hor dago: mutilek mutilen dantzak egin behar eta neskek neskenak...

Mutilen dantzak neskenak baino gehiago dira, baina dantzarietan mutil gutxi dagoenez, neskak mutilen dantzak egiten hasi dira, dantza horiek ez galtzeko edo taldeak jendearen aurrean errepertorio zabala dantzatu ahal izateko. Gure taldeko neska batek, adibidez, kaixarranka dantzatu zuen behin Sondikan. Emakumeok mutilen dantzak egin ditugunean, mutilen arropa jantzita egin dugu. Hala ere, hori edozein lekutan ezin da egin. Horrela, bada, Dantzari Egunean eta horren moduko beste jaialdi berezi batzuetan tradizioa errespetatu behar dugula uste dut. Horietan neska batek kaixarranka dantza-



Izaskunek 40 urte daramatza Gorantzaileak dantza taldean; taldea sortu zenetik hona, hain zuzen ere. Duela 11 urte dantzak irakasten hasi zen bertan, baita arduradun-lanetan aitari laguntzen ere.

tzea ez litzateke zuzena izango, nire ustez. **Taldean 68 lagun zarete; horietatik 25 baino ez dira mutilak. Zer egin mutil gehiago erakartzeko?**

Ba, neskek senargaia izatea! (kar, kar). Egia esan, ez dakit, baina argi dago dantzariak kalean ere lagunak izateak eragin handia duela horretan: gustura badaude, jarraituko dute, baina baten batek taldea uzten badu, lehentxeago edo geroxeago besteek

ere utziko dute. Beste alde batetik, dantzariok kontrol handiak jaso behar izan genituen Francoren garaian eta horrek amorrua eta dantzatzeko gogo handiagoa piztu zuen guregan. Gaur egun, berriz, ez dut sentimendu hori dantzariengan sumatzen. Orain gaudenok ahalegin handiak egiten gabilta, euskal dantzak ez galtzeko; hala ere, ez dakit atzetik datozenek lan hori jarraitu nahiko duten.

Zerk bultzatu zintuen Ordenan sartzea?

Neska arrunta nintzen eta maitasun bila nenbilen. Baina nik maitasun handia nahi nuen, benetakoa... Eta bidetik topatzen nuenak ez ninduen betetzen. Maitasun hori Jesukristorengan aurkitu nuen, eta, horren ordainean, bizitza osoa ematea merezi zuela erabaki nuen. Izan ere, benetako maitasuna da, beti barkatzen zaituena, azpikeriarik gabekoa...

Faltan botatzen dira kanpoko gauzak?

Ordenan sartu nintzenean, nire sentimendu guztiak amaituko zirela pentsatzen nuen, eta, hala ere, berdin zidan, hain maitasun handiarengatik dena emateko prest nengotelako. Jainkoak gauza ugari oparitu dizkit. Pozik bizi naiz, eta oso harro nago emakumea izateaz.

Bai...

Emakumea izatea oso gauza ederra da, eta ezin diogu, ez inori, ez ezeri, gure emakume-izaera hori lapurtzen utzi. Emakumezkoak eta gizonezkoak berdinak gara, eta gizonek ez dute gu zapaltzeko eskubiderik. Baina, gizonak garaitu nahi izateagatik edo, emakume-sentimenduak hiltzen ari garen sentsazioa dut batzuetan... Eta hain politak dira sentimendu horiek! Amatasuna, adibidez, munduko gauzarik ederrena da. Guk uko egin diogu horri eta, bene-

“Emakumeok protagonismo handiagoa izan beharko genuke Elizan”

tan diotsuet, asko kostatzen da. Baina beste amatasun mota bat topatu dugu: espirituala. Badakit egoera eta zirkunstantzia asko daudela, baina, mesedez, ez diezaiogun gaur egungo bizimoduari gure emakume-izaera hiltzen utzi.

Ordenan denbora luzea eman ostean –ez du bere adina esan nahi, “ni ere emakumea naiz, e!”–, instituzioaren zuzendaritza hartu zenuen duela 24 urte, egon da aldatetarik?

Bai, orain askatasun handiagoa dugu geure

erabakiak hartzeko. Horren ondorioz, hobeto gaude eta hobeto antolatzen dugu etxea. Gu klausurako mojak gara eta komentuan sartu ginenean, betiko izan zen; familia ez genuen berriro ikusiko. Baina Kontzilioaren ostean, gauzak apur bat aldatu ziren, eta orain irten gaitezke kalera errekaduak egitera, familia ikustera, medikua-renera... Beste komentuekin ere harremana dugu, eta gure gauzen berri ematen diogu elkarri.

Eta emakumeak hain dotore jantzita ikus-

ten ditudanean... Ba, gustatzen zait; izan ere, moja naiz, baina emakumea ere bai.

Eskuratu beharko luke emakumeak leku handiagoa Elizan?

Bai, protagonismo handiagoa izan beharko genuke. Ez nago emakumeak apaiz izatearen alde, baina uste dut liturgia-zereginetan partehartze handiagoa eduki behar dugula. Hala ere, lorpen handiak ere izan ditugu: hitzaldiak eta jardun espiritualak ematen hasi gara... Bat baino gehiago aho zabalik uzten dugu, ez pentsa!

“Oso harro nago emakumea izateaz”

Mercedes moja Santa Klararen Ordenan sartu zen 24 urte zituela. “Denbora luze joan da ordutik hona, eta gauzak ere aldatu egin dira”. Eta aldaketa horien gainean aritu gara berarekin, hain zuzen ere.



“Alkatea emakumezkoa izateak laburtu leike emakumezkoen eta Administrazioaren arteko bidea”

Zelan hartu zenduan alkategai izateko proposamena?

Egia esateko, ezustekoa izan zan. Inoiz ez dozu pentsatzen karrera politikoa egingo dozunik, baina momentu hartan alkatetzarako pertsonarik egokiena neu nintzala erabaki zan.

Oso emakume gitxi izendatzen dira alkate...

Baina gure alderdian hautagaiak ez dira sexuaren arabera aukeratzen, eta nik be ez neban puntu berezirik izan emakumea izateagaitik. Badagoz perfil batzuk, eta perfilon arabera proposatzen dira hautagaiak.

Zer ekarten deutso emakumezko batek alkatetzari, gizonezko batek ekarriko deusarik?

Ez da sexu kontua; pertsonen izaera da garrantzitsuena. Dana dala, oraindik be handia da gizonezkoen eta emakumezkoen eskubideen artean dagoan aldea; horregaitik, alkatea emakumezkoa bada, beti saiatuko da emakumezkoen eskubideen alde apur bat gehiago egiten. Baina politikarietan badira gizonezko asko, emakumezkoen arazoeziko sentiberatasun handia daukienak, nik besteko sentiberatasuna daukienak.

Beste alde batetik, nik uste dot emakumeak orain arte distantzia handiagoagaz hurbildu dirala administrazioan. Baina orain administrazioan emakumezko bat buru egonda, izan leiteke, beharbada, administrazioarako bidea errazagoa egitea. Baina hori kanpokoen pertzepzioa da, barrukoen baina gehiago. Izan be, inoiz ez da oztoporik egon edozein pertsona Administrazioa hurbiltzeko; eta are gitxiago, emakumea bada.

Baina zu sentiberatasun handiagoa izango dozu arazo batzuekaz...

Bai, neurri handi batean neuk be sentitzen dodazelako. Eta arlo horretan errazago egin zeinke lan. Baina alkatetzak ez ditu erabagi guztiak hartzen, Gobernu batzordeak be badauka zer esana. Andrazko bik eta gizonezko bik osatzen dogu Gobernu batzordea. Emakume arloko gaiak aurrera aterateko, ikuspuntu guztiak beharrezkoak dira eta elkarlanean aritzea ezinbestekoa da. Adibidez, legealdiaren hasieran, emakume taldearen sorrera bultzatu genduan herrian, borroka zeinek bere aldetik egitea



Sorkundek gazte-gazterik argi euki dau herriaren alde behar egin gura ebala. 2003ko ekainean Zamudioko alkatetza eskuratu eban.

oso gatxa dalako eta elkarteen bitartez lana errazago egin daitekeelako. Udalaren helburua da, emakumezkoen beharriaz erantzuna eman behar jakenean, emakumezkoak batera lan egitea. Taldeak mar-txa polita hartu dauela uste dot.

Gatxa da beste alkateekaz edo politikariekaz borrokatzea?

Ez, parekoen arteko harremana daukagu eta bakoitzak berdin defenditzen ditu bere ideiak, emakumezkoa izan nahiz gizonezkoa izan. Elkarrekiko errespetu handia

*“Politikarietan badira
gizonezko asko,
emakumezkoen
arazoeziko sentiberatasun
handia daukienak”*

dago.

Politika munduan emakumezkoak zein arlo ez dau oraindik bereganatu?

Benoa, emakumeak gizarte ongizate eta kultura arloetan aritzen gara gehienbat; Osasun arloan be badabilz batzuk... Baina, Hirigintzan, esate baterako, emakume gutxi dabilz gaur egun.

Eta alkate ez ezik, ama be bazara.

Politikak denbora asko kentzen dau eta horregaitik ezinbestekoa izaten da etxeko- en eta etxe inguruko laguntasuna izatea eta eurek hori ulertzea, izan be, politikariorik ez dogu ordutegi finkorik izaten, eta batzuetan ordu asko emon behar izaten doguz etxetik kanpo. Dena dala, emakumezkoak, etxetik kanpoko lanean ez ezik etxean be hainbat zeregin izaten doguz, baina ikusten dot gizonak be hasi dirala etxeko beharretan gero eta gehiago parte hartzen. Eginkizunak konpartitzen hasi gara.

AIKOR!, lau urte txorierritarren artean

Joan den urtarrilaren 26an, **AIKOR!** Txorierriko aldizkariaren 4. urteurrena ospatu genuen Lezamako Txokoan. Bertara hainbat lagun batu ginen: euskara elkarteak, kolaboratzaileak, iragarleak, erakundeetako ordezkariak, irakurleak... Txorierritaron aldizkariari aurrera egiten laguntzen dioten hainbat lagun, hain zuzen ere.

Udane Goikoetxea, Bizkaia Irratiko esataria, ohiz kanpoko aurkezle eduki genuen. Kazetariak bidea eman zien gonbidatuei. Horien artean, Esti Izagirre Mendebalde Alkarteko ordezkaria eta Mertxe Larrañaga EHUko ordezkaria izan ziren.

Aikor! saria jaso zuten Iñaki Gaminde ikerlariak eta Derioko Dendari eta Zerbitzuetako Elkarteak, euskararen alde egindako lana dela-eta. Ibon Koteron, Gaizka Peñafiel eta Edurtzeta Ania musikariak ere gurekin izan genituen eta saio zoragarria oparitu ziguten. Guztioi, mila esker, bihotz-bihotzez.







Zamudioko Lagunandre Emakumeen taldea

“Etxea eta lanaren ostean ere, badago bizitza”

Lagunandre taldea 2004. urteko martxoan sortu zen. Udalak Emakumearen Nazioarteko Egunaren inguruan antolatutako ekitaldiak aprobetxatu eta, elkartearen osatzeko zenbat emakume prest zeuden aztertzen hasi ziren. Gaur egun, 100 bat lagun dira.

Zergatik taldea osatzeko beharra?

Zamudion ez zegoelako ezer emakumeei zuzenduta, ezta elkartzeko lekurik ere. Emakumeok babesgabe sentitzen gara askotan, ez dugulako informazio nahikorik hainbat egoerari aurre egiteko: legeei dagokienez, osasun arloan, eskabideren bat bete behar izatekotan... Taldeak emakume guztiei informazio hori zabaltzea du helburu, eta horretarako, hainbat hitzaldi antolatzen ditugu, arlo ezberdine-

duta.

Beste alde batetik, emakumeok elkartzea eta gure arteko harremanak estutzea beharrezkoa da, etxea eta lanaren ostean ere, bizitza badagoelako.

Zein adinetako emakumeak zaudete?

36 urtetik 80 urtera bitarteko lagunak gara, baina neska gazteagoek ere taldean parte hartzea beharrezkotzat jotzen dugu, eurek gauza eta iniziatiba interesgarriak ekar diezazkiguketelako. Gure

ekintzak ere baliagarriak izan daitezke eurentzat.

Nola ikusten duzue emakumearen egoera?

Aurrerapausoak egin dira, baina bide luzea daukagu aurretik. Egoera txarra da, oraindik matxista asko dagoelako eta geure burua rol konkretu batean sartu, eta ez garelako handik ateratzeko gauza. Adibidez, elkartearen bazkariren bat proposatz gero, egiten





dugun lehenengo gauza senarra eta seme-alabekin gogoratzea da. Bakarrik utziko ditut? Ondo konponduko dira? Hori jasotako hezkuntzaren ondorioa da. Emakume guztiok -zahar zein gazte- dugun arazoa da.

Zer egin, egoera hori gainditzeko?

Lehenengo eta behin, mentalizatu eta denok parekoak garela sinestu behar dugu. Argi izan behar dugu ezin dugula egoera onartu. Eta horren ostean, borrokatu arlo guztietan. Horrezaz gainera, ema-

“Emakumeok ez dugu informazio nahikorik hainbat egoerari aurre egiteko, eta taldeak emakume guztiei informazio hori zabaltzea du helburu”

kumeok dugun erruduntasun-sentimendu hori baztertzea ezinbestekoa da. Baina, noski, oso zaila da hainbat eta hainbat urtetan ikasi duguna egun batetik bestera baztertzea.

Emakume askoren arazoa da hori...

Bai, txiki-txikitatik irakatsi egin zaigulako; okela jateko, aiztoa eta sardexka erabili behar ditugula irakatsi diguten moduan. Emakumeari sarraillaren beste aldean zerbait gehiago dagoela erakutsi behar zaio. Eta horrek, bizitza duela izena. Eta ukitu ahal dela, bizi ahal dela. Horregatik, gurearen moduko elkarteetan parte hartzeko prest dauden emakumeak izatea oso inportantea da.

Tratu txarrak, hiltzeak... Gaur egungo arazoak dira horiek, hala ere, beti egon dira. Legeak babesten ditu emakumeak?

Ez, ez dago eskubiderik. Egunero agertzen da halako kasuren bat eta ez da ezer egiten. Legeak ez gaitu babesten, ez dugu laguntzarik, eta salatzeak ez digu ezertarako balio. Legeak gogortu eta zigorrak oso-osorik bete behar dira.

Gogoratu behar dugu emakume asko ez direla laguntza eskatzera ausartzen. Izan ere, beldurraz gainera, lotsa ematen die etxean duten egoera besteek jakitea. Porrota da eurentzat. Eta jasotako hezkuntzak ere eragin handia du horretan. Zenbat aldiz entzun dugu? “Ez duzu ezer jasaten. Nik jasan dudana zeuk jasan beharko bazenu!”.

Zeintzuk dira emakumearen erronkak?

Berdintasuna lortzea arlo guztietan, baina benetakoa, ez teorikoa. Gu balora gaitzaitela eta gizonen zerbitzura ez gaudela jabetzea. Eta inportanteena: elkar errespetatu gaitezala.

Eta zuenak talde moduan?

Emakumeei laguntzen jarraitzea eta borrokatzea. Aurrera egitea, azken batean.



Emakumearen gaineneko gogoeta batzuk

Ginekologo moduan emandako urteetan hainbat gogoeta egin ditut. Gogoeta horiek ez ditut normalean besteekin konpartitzen, baina aukera aprobe txatu eta zuekin konpartitzea gustatuko litzaidake hurrengo lerroetan.

Emakumearen gaineko hausnarketa egiten dudanean –bere gorputzaren gainean, hain zuzen ere-, haurtzaroari erreparatu eta ea alabei euren gorputza onartzen eta ezagutzen irakasten diegun galdetzen diot neure buruari. Ea nerabezaroan izaten diren aldaketez jabetzen irakasten diegun, baita geroago izaten ditugun aldaketa ziklikoez

ere. “Gorputz-ezaguera” horretan hurrengo hauek kontuan hartu beharko lirateke: norberak bere menstruazio-egutegia egitea, aldaketa ziklikoak apuntatzea, gure pisua jakitea, jaten ikastea, kirola egitea, gorputza mugitzea, gorputza malgu sentitzea... Eta gorputz eskuraezina duten modeloen ispiluan –jatekorik hartzen ez duten edota euren gorputza apaintzen dirutza gastatzen duten modeloen ispiluan– gure buruari ez begiratzea... Gorputz ezberdinak daudela onartzen ikasi beharko genuke txiki-txikitatik: batzuk altuak direla, meheak, titi txikiak dituztela; beste batzuk potoloagoak direla, titi handiagoak dituztela, gorputzean ile gehiago dutela edota granoak dituztela aurpegian...

Gure gorputzarekin bizi izaten ikasi beharko genuke, baina gozatu eta sortzeko aukera moduan, eta ez besteena den zerbait edota medikuak bakarrik ezagutzen

“Gure gorputzari eta horrek sentiarazi egiten digunari dagokienez, isiltasun eta beldur handiegia dago oraindik”

duen zerbait izango balitz bezala. Gure gorputzari eta horrek sentiarazi egiten digunari dagokienez, isiltasun eta beldur handiegia dago oraindik, nire ustez.

Ezer ez dela gertatzen ematen duenean, orduantxe taxutzen dira gehien baldintzatzen gintuzten gauzak, nire ustez; horixe bera gertatzen da jaio aurretik, umearentzat lehenengo hamabi astebeateak –emakumeak ez du ia haurdunaldi-sintomarik sumatzen orduan- baitira inportanteenak. Gure emakume-izaera ere haurtzaroan taxutzen da. Hori sexugabeko aroa da, itxuraz. Mezuak era askotara helarazten dira eta horiek buruan ezartzen zaizkigu betirako: “Ez ikutu!”, “Ez zikindu!”, “Hilekoa etorri zaio, hori pena!”.

Eta geroago, seme-alabak noiz eduki aukeratu egin dezakegu, baina hainbeste pentsatzen dugunez, berandu egiten zaigun batzuetan... Haurdun izateari beldurra kendu eta sexuaz goza dezakegu, baina berriak eta gainezkoak diren arriskueta jartzen dugu geure burua... Min barik erditzen laguntzen digute, baina protagonismo osoa galtzen dugu une bakan horretan.

Antza denez, bizitzak horrela izan behar du: arlo batean aurrerapausoak ematen ditugu, baina zailtasun berriak agertzen dira beti.

Eta bukatzeko, menopausiari buruzko gogoeta egitea gustatuko litzaidake eta horretan baikorra da nire mezua. Ile urdinek ematen dizkiguten abantailak aprobe txatu ditzakegula uste dut eta horrela, denbora falta dela-eta, lehenago bete ezin izan genituen hutsune horiek zuzentzea. Horretarako, gure gorputzaz gozatzeaz gainera, humorea erabili behar dugu, zahartze-prozesu naturala tragediatzat ez hartzeko. Gizarteak eta medikuntzak egiten dizkiguten ekarpen guztiak ere aprobe txatu behar ditugu zeregin horretan.

Emakume baserritarren gunea



1999. urtean Arabako Nekazal Inguruko Emakumeen Sarea osatu zuten Arabako emakume baserritar elkarteek. Sarea, nekazal emakume elkarte eta erakundeen arteko laguntza eta lankidetzarako gunea da, eta lau helburu ditu ardatz nagusi: bate-tik; emakumeentzako aukera berdintasunaren alde lan egiten duten taldeen arteko lankidetzaren suspertzea, eta, bizi-eremu guztietan, emakumeen partehartzea bultzatzeko estrategiak sortzea. Eta bestetik; nekazal arloan emakumeek izan beharreko protagonismoa indartzea, eta informazioa elkarrekin trukatzeko. Sarearen nondik norakoak www.muje-resruralesalavesas.org helbidean kontsulta daitezke.



Guztiak

Todas, 20 emakume baino gehiagok osatutako bitakora kolektiboa da. Horiek lan-arlo ezberdinetako emakumeak dira eta euren iritziak, lanak eta esperientziak azaltzen dituzte bertan. “Gustatzen zai-gun guztia erakustea dugu helburu, guregan eragina duena, kezkatzen gaituena, eta egiten duguna”. Todas bitakoraren emakumeek ahalik eta informazio zabalena eman nahi dute, eta horretarako, egunero, gai ezberdinen inguruko gogoetak egiten dituzte sarean.

www.faq-mac.com/bitacoras/todas.

Inor baino burugorragoak

Mas terkas que nadie, dena, birpentsatzeko prest dauden emakume batzuen bitakora da. “Burugorrrak gara, damugabeak eta zuzenezinak. Burugorrrak gara, geure ideiei eutsi egiten diegulako. Burugorrrak gara, pentsatzera ausartzen garelako eta horren ondorioak onartzen ditugulako”.

www.masterkas.bitacoras.com.

Ekin emakumeak

Ekin Emakumeak-AED Arrasateko kultur elkarteak 1995. urtean sortu zen, hurrengo hiru helburu hauekin: euskara eta euskal kulturaren bidez emakumearen garapena indartzea; emakumeek diharduten arlo eta guneetan euskal hizkuntza eta kulturaren normalizazioa bultzatzea; eta azkenik, helburu bereko eta antzeko talde, erakunde edota elkarteekin harremanak bideratzea. Hauxe da elkartearen helbidea: <http://comunidades.kzgunea.net/> EkinEmakumeak.

Emakumeak sarean

Munduko emakume feministek badute txokoa www.nodo50.org/mujeres-red/ helbidean. Bertan; nazioarteko albisteak, pil-pilean dauden gaiak buruzko gogoetak, emakumei lotutako hainbat txosten, eta, eztabaidatzeko foroak eskaintzen dira, besteak beste. Horrezaz gainera, liburuen berri ematen dute eta orri zein blog interesgarrietarako loturak ere badaude.

**“Gure nortasuna bizirik
egotea emakumeen isilpeko
lanaren ondorioa da”**

1981ean jaiotako durangarra. Ene Bada taldeko partaideak izateaz gainera, 9 urte daramatza Zamudioko Bertoko taldean panderoa irakasten.

**Ene Bada taldea neska bik sortu zenuten:
nola ikusten duzu emakumearen egoera
gaur egungo euskal musikan?**

Egia da gutxiago garela, baina horrek ez du esan nahi ez gaudenik. Ene Badan neska bi gaude, hala ere, taldetik pasatutako gainontzeko musikari guztiak gizonetzkoak izan dira. Baina hori emakumezkorik aurkitu ez dugulako izan da.

Musikarietan emakume asko dago. Agian, gizonak baino gehiago, bain gutxiak hartzen dute musika-tzat. Dena den, nire ustez bereizketa horiek nabarmenak dira musikarekin erlazionatutako beste zenbait esparrutan: proiektuak, teknika, arloak...

**Trikitixa munduan gero
emakume gehiago daud
mutilak baino gehiago seg
ruenik, hala ere, trikitilar
ezagunenak gizonezkoak...**

Horrela da bai, baina hori ez soilik trikitixaren inguru pasatzen. Edozein musika esleia zein kontserbatoriora jango, ikusiko dugu bertan ikasleak duten emakumezkoen kopurua gizonetzkoena baino askoz handiagoa dela; plazetan txapelketetan, berriz, gizonetakoak nagusi. Nire ustez, arazoak heziketan dago. Emakumezkoek ikasteko aukera ematen zaigu, baina daki-guna jendaurrera eramate-

*“Ikasteko aukera ematen
zaigu, baina dakiguna
jendaurrera eramateko
orduan oztopo gehiago
jartzen zaizkigu”*



ko orduan oztopo gehiago jartzen zaizkigu. Eta sarritan, ate horiek guk geuk ixten ditugu, gure burua beste zenbait arlotan kokatuz.

Neskatoak dira zure ikasle gehienak...

Hori gurasoen esku izaten da normalean: alaba musika ikastera bidaltzen dute eta semea kirola egitera. Hori familiak eta gizarteak finkarazten duten balore bat besterik ez da.

Zuen azken singleak Venusetik gertu arrakasta handia izan du, zer kontatzen duzue bertan?

Interpretazio asko egin dira. Egia esan,
benetako esanahia dakien bakarra Unai
Ariaga da, berak egin baitu letra. Guk
e nortasuna eman diogu eta neska bik
sten dugunez, emakumeok harreman-
izan dugun aldaketaren gaineko abes-
dela pentsatu dute gehienek. Azken
an, abestian kontatzen dena, edozein
iko tabernatan, eta bikote baten artean,
u daitekeen pasadizo bat besterik ez
Norberaren interpretazioaren esku
tzen da.

**tik Izotzera diskoan, etxeoandreei
sti bat eskaintzen diezue, zer dela eta?**
e ustez, Euskal Herriko etxeoandrea-
papera oso garrantzitsua izan da gure
ura eta hizkuntza gureganatzeko. Gure
n, abesti, dantza eta hizkuntza irakas-
euren ardura izan delako mendeetan.
re nortasuna bizirik egotea beraien
isilpeko lanaren ondorioa da. Hala ere,
lan hori ez da inoiz aintzat hartu eta
guk abesti honen bitartez, omenaldi
xume bat egin diegu; abestiak dion
moduan, liburuetan agertzen ez
diren arren.

Testua eta argazkia: Gaizka Peñafiel

Euskal sorginak

Euskal sorginak aipatzea siniskeriak, jazarpenak eta suak aipatzea bezalakoxea da, baina halakoez ez ezik, Historiaz, elezaharrez, antzinako sineste- ez, herri medikuntzaz eta tradizioez ere hitz egitea da. Auzo jainkojaleek, inkisidore ustelek, elizgizon eskolagabe- ek eta nagusikeriari emandako alkateek deabruak ikusi zituz- ten, nahiz eta haien aurrean besterik ez egon, ezpada egu- neroko errealitate gordinetik i- hes egin nahia eta artean galdu gabe edota erdi ezkutuan ze- goen kultura jazarriari eusteko asmoa.

XVI. eta XVII. mendeetan mila euskaldun inguru erre zituzten bizirik; baina, botere zibilek eta eliz botereek jazarrita, ezin konta ahala izan ziren torturak, kartzela, deserria, jipoiak eta beste hainbat zigor jasan zituztenak.

Hasiera batean, Espainiako Inkisizioa ez zen asko arduratu euskal sorgintzaz; eta, arduratu zenean, Nafarroan jarri zuen arretarik handiena. Bizkaian, Gipuzkoan eta Araban alkateek eta erretoreek hartu zuten susmagarriak atxilotzeko ardura, kasurik gehienetan auzokoen salaketetan oinarriturik. Iparraldean ere tokiko aginta- riak izan ziren alarma oihua zabaldu zute-

nak; ondorioz, Lapurdin bakarrik, seiehun lagun sarraskitu zituen Pierre de Lancrek, zeinak Rostegi zuen egiazko deitura.

"Sorgin ehiza" izenekoan bezain ondo beste inoiz ezin izan da egiaztatu zelan hondar alea mendi bilakatzen den: mendi horretatik amilarazi zituzten, hain zuzen ere, zaharrak, umeak nahiz gazteak, ama ezkongabeak eta pertsona helduak, elizgizonak, emakume santujaleak, emagi- nak nahiz petrikiloak. Min bizia eragiten du pentsatzeak zenbat errugabek jasan zuten halako jazarpen zentzugabea, eta are mingarriagoa da jakitea patu hori ezagutzen zituzten pertsonak eman zietela, egu- ro-egunero ikusten zituztenek. Lehenengo akusatuak –ia beti emakumezkoa– beste pertsona batzuk akusatzen zituen eta haiek beste batzuk. Arrazoiak edozein izaten zen; ez, ordea, aztikeria, hegan ibiltzea, dea- bruzko adorazioak, umeak hilt- zea edota edabeak eta pozoiak.

Gure garai honetan berriro zabaldu da akelarreak egiteko ohitura, dela turismoa erakar- tzeko, dela, besterik gabe, jai egiteko; baina oraingo akela- rreek ez dute batere loturarik ez usadio zaharrak bizirik atxi- kitzeko nahiarekin, ez aurreko- engandik datorkigun jakiteare- kin, ezta kontakizunak, epo-

peiak, kantuak eta bertsoak ondorengoei ezagutaraztearekin ere. Oraingo akelarre- ak folklore ikuskizun hutsak dira; beste helbururik ez dute sorgin-ehiztariek behi- nola irudikatu eta Euskal Herria oinazez eta kezka bete zuen esperpentoa errepro- duzitzea baino. Ahaztuta geratu da gure herrietan egiten ziren harako batzar haien egiazko esanahia: herri jakintza eta memo- ria ondorengoei helaraztea.

Toti Martinez de Lezea



Irudia: Juan Luis Landa. *Euskal Herriko leiendak* liburuan / Toti Martinez de Lezea. 2002ko apirila

LEHIAKETA

Sukaldaritza

Etxeko sukaldaritza

Erroskilak

Osagaiak:

- Arrautza 2
- Kikera bete esne edo esne-gain
- Kikarakada bi azukre
- Limoi azala birrinduta
- Koilarakada bi ekilore (girasol) olio
- Sobre erdi legamia (altzagarria)
- Uruna
- Oliba olio



Prestatzeko era:

Osagai guztiakaz oreia egin (uruna bota, oreia esku artean erabili ahal izateko beste). Behin oreia eginda, batu sorki edo trapu baten, frigorifikora sartu eta ordu bitan euki gitxie-nez (gau osoan be euki lei).

Frigorifikotik ataraten dogunean erroskila formea emon, oliba olio askogaz prijidu...

Sartu ahora (baina erre barik) eta on egin!



Mari Tere Onaindia

Ogizko tostadak



Osagaiak:

- Ogi handi bat (bezperan, azala kenduta)
- Litro bat esne
- 3 palo kanela
- Kanela-hauts apur bat
- 250 g. azukre
- 300 cl. ur
- Olio edo koipea
- Arrautzak

Prestatzeko era:

Ogia xerratan ebaki (12 xerra gutxi gorabehera) eta bandeja batean ipiniko ditugu. Ura, kanela eta 200 gramo azukre su motelean egosiko ditugu 15 minutuan. Esnea gehitu eta irekitzen hasten denean, ogiari botako diogu nahasketa eta jalkitzen utziko dugu, nahasketa hori ondo xurgatu arte.

Beste alde batetik, olio (edo koipea) berotzen jarriko dugu zartagin batean. Hamar minutu pasatu ondoren, ogiak soberan duen likidua kenduko dugu espumadera batek lagunduta. Arrautzak irabiatu eta tostadak frijitzeko erabiliko ditugu. Tostadak bandeja batean ipiniko ditugu. Azukrea eta kanela-hautsa nahastu eta tostaden gainetik botako dugu.

Maite Lekerika, Leke's jatetxekoa

LIBURUAK

Zergatik Panpox. Arantxa Urretabizkaia.

Emakumeak eta feminismoa mendebaldean. Mertxe Korta,

Emakumeak Euskal Herrian... Teresa del Valle.

El grito silenciado. Ana Tortajada

Emakumeak XX. mendeko historian. Alizia Stürtze.

Katalina Erauso. Aitor Zuberogoitia.

Cuentos de Eva Luna. Isabel Allende

La novia oscura. Laura Restrepo

Mujer en guerra : más masters da la vida. Maruja Torres

Atlas de geografía humana. Almudena Grandes

Mujeres cantando suavemente. Wilhelm Genazino

El desencuentro. Fernando Schwartz

Neskatzak. Agustín Fernández Paz

MUSIKA

Zebra. Anari. Azkoitiarraren hirugarren diskoa.

The Sharon Shannon Collection 1990-2005. Hamabost urteko lan bilduma honetarako, musikari irlandarrak Folk musikatik hasita reggae-raino doaku disko bitan. Lehen diskoa instrumentala da eta bigarrenen, J. Browne, D. O'Halloran, S. O'Connor ... kolaboratzaile bokalekin aritzen da.

Aether. Anabela. Portugaldarra izanda, fadoko diskoa izan behar. Testuak: Antonio Gala, Pessoa... Instrumentistak: Pancho Alvarez ta Madredeusekoak.

DENBORA PASA

LETRAZOPA

A	G	T	P	D	M	H	U	B	F	I	B	U
R	F	E	O	A	K	G	G	M	T	B	F	D
F	R	E	G	T	B	B	A	O	D	C	P	E
L	A	S	E	N	A	Z	T	N	I	A	I	A
D	U	Y	B	S	R	U	A	H	X	Y	N	M
Z	J	T	F	R	A	E	P	D	H	H	J	A
K	T	R	S	J	N	U	I	P	O	I	L	G
B	A	S	S	T	T	R	A	G	V	K	K	O
T	X	F	G	P	Z	I	L	M	N	O	Z	I
M	L	S	I	G	A	Z	H	E	P	N	Z	A
U	Z	X	O	M	Ñ	R	M	J	I	Y	M	Z
Y	Ñ	M	A	I	T	E	I	Ñ	Ñ	M	Y	L
N	J	L	K	K	O	N	J	O	O	H	N	X

A	S	Z	E	L	A	R	E	F	R	O	H	G
T	A	E	X	T	A	L	O	M	E	R	R	E
Ñ	R	A	I	B	K	Z	E	H	E	F	B	T
X	I	Y	T	N	D	H	J	K	P	P	X	Ñ
U	P	S	E	F	U	Y	O	D	A	S	O	K
J	A	D	I	N	Z	A	M	P	G	Y	G	B
H	R	U	G	F	B	O	X	A	N	T	J	R
B	R	L	D	A	Z	T	A	K	A	R	E	B
A	E	B	D	M	U	K	R	H	B	F	X	A
B	P	N	E	X	Y	S	R	I	O	U	J	N
K	I	M	P	U	L	L	E	A	A	O	Y	R
F	P	U	J	L	S	K	D	L	D	L	Z	M
Z	M	T	I	U	H	N	I	E	N	M	G	P

Aurki itzazu goiko letrazopan **AIKOR!** aldizkarian inoiz portada izandako 7 emakume hauen izenak.

Ezkerraldean **AIKOR!** 45. zenbakiaren letrazoparen erantzuna. 7 landareen izenak Txorierrin esaten dan erara idatzita.



Euskal herriko d-generazioa



Antzerkia eta filmak

Zamudio

–Sahara, martxoaren 5ean; *Cinderella man*, martxoaren 12an; *Sr. y Sra. Smith*, martxoaren 19an, eta *Danny the dog*, martxoaren 26an. Guztiak 18:00etan, dorrean.

Larrabetzu

–*Ipuin kontalaria: Show Collage*, martxoaren 24an, 17.30ean, Anguleri jauregiko aretoan.

Erakusketak

Sondika

–Sondikako Inauterietako argazkiak, martxoaren 1etik 31ra, Erakusketa Aretoan.

Zamudio

–*I-Corpi-Sferici*, Gilberto Fregolent italiar artistaren koadroak. Martxoaren 24tik apirilaren 7ra, dorrean.

Kirola

Sondika

–Sondikako XVIII. Areto-futboleko Txapelketa. Domeketan, 09:00etatik aurrera, Goronda Beko kiroldegian. Txapelketa maiatzaren 7an amaituko da.

Zamudio

–Bilbao-Bilbao 06 Nazioarteko Zikloturista Proba Klasikoa, martxoaren 19an. Zamudiotik 10:30etik 11:45era bitartean iga-

roko dira.

Hitzaldiak

Lezama

–Toti Martinez de Lezea, martxoaren 13an, 19:00etan, Kultur Aretoan.

Inauteriak

Lezama

–Artista lehiaketa, karaokea, herri afaria, mozzorro lehiaketa... Martxoan 4an, 19:00etatik aurrera, pilotalekuan.

Irteerak

Sondika

–Derio-Larrebetzu zeharkaldia, Udalak eta Guraso Elkarrekin antolatua. Martxoaren 12an. Izena emateko epea: martxoaren 6tik 9ra.

Zamudio

–Zalama-Kolitz, martxoaren 12an, Arroeta mendi taldeak antolatua.
–Arrateko igoera, apirilaren 8an, Racing elkarrekin antolatua.

Musika

Larrabetzu

–Kamara kontzertua, martxoaren 23an, 20:00etan, Anguleri jauregiko aretoan. U-

dalak eta Musika Eskolak antolatua.

Bestelakoak

Zamudio

–Benidormerako bidaia izena emateko epea: martxoaren 13tik 27ra, Udaletxean. Bidaia apirilaren 22tik maiatzaren 5era artekoa izango da.

–Les Luthiers taldea ikustera joateko izena emateko azken eguna: apirilaren 4a. Saioa apirilaren 7an izango da Euskalduna jauregian.

–Jose Manuel Botana idazlearen *El lanza -dor de piedras* liburuaren aurkezpena. Martxoaren 30ean, 19:00etan, dorrean.

Lezama

–Zuhaitz Eguna. Martxoaren 11n, 10:30etatik aurrera, mintegian.

–Irakurketa-suspertzea. Martxoaren 23an, 18:00etan, liburutegian. 3 urtetik gorako umeei zuzendua.

Larrabetzu

–Surf ikastaroan izena emateko epea: martxoaren 13tik 17ra, 18:00etatik 20:00etara, liburutegian.

–Udal ikastaroetan izena emateko edo matrikula berritzeko epea: martxoaren 20tik 24ra, 18:00etatik 20:00etara, liburutegian.

–Umeentzako Aste Santuko programan izena emateko epea: martxoaren 27tik 31ra, 18:00etatik 20:00etara, liburutegian.